

## Aurten ez da egingo Igorreko Ziklo-krosa

Arratiako Ziklista Elkarteak hartu dau ebatzi hau errazoi ekonomiko eta egiturea berregitearen beharragaitik. Urri bigarrenaren 23an emon eben jakitera ebatzia AZEK eta Igorreko Udalak. Datorren urtean egin ahal izateko alkarlanean dabiz ziklista alkarteak eta Udala. 2024an, ziklista eskolako Kadete eta Gazte mailako ikasleek ez dabela Igorren jarraituko eta Zornotzara edo Durangora joango dirala jakinarazo deuto BEGITURI Leire Aurrekoetxea AZEko presidentek. **10. orrialdea**



## Ahozkoan, herenak ergatiboa isildu edo txarto erabilten dau

**G**aztelerearen eraginagaitik, giro erdaldunetako euskal hiztunen %33k ergatiboa isildu egiten dauala ondorioztatu dau Endika Uriarte igorretarrak egindako euskera eta erderearen alternantzia eta ergatibo kasuaren gaineko ikerketan. Euskera eta gaztelaniaren alternantzia, gero eta zabalduago dagoala ikusi dau iker-tzaileak, "lehen gazteen hizkuntza zan batez be, baina oin danera zabaldu" dala dino.

Euskaltzaindiaren Mintzola Hizkeraren Lantegiak saritu dau ikerketa proiektu hori eta beste saritu batzuk batera, Endika Uriartek aurkeztu eban ikerketa proiektua urri bigarrenaren 18an, Donostiako egoitzan. **8. orrialdea**



## ZeberioK0, kulturaz betetako hiru egun

Kontzertuei jagokienean, Amparanoia, Skabidean, Janus Lester, Bad Sound, Odola Kantari, Maria Rivero, Sés, Women Soldier, Burbuilak, Green Valley, Hekthor Folk, Basatitiak eta Orkresta Elektrotuna taldeek joko dabe. **12. orrialdea**



### ARRATIA

## Igoran Andren Jabekuntza Eskolako tailerrak hastear dagoz

Igoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak 2023-2024 ikasturte-rako eskaintzea emon dau jakitera. Lehenengo tailerra *Arteterapia* izango da eta hilaren 14an, 17:30ean hasiko da Igorreko Kultur Etxean. **5. orrialdea**



### DIMA

## Maskulinidade ez-patriarkalen gaineko erakusketea Diman

Dimako Liburutegian, zehendiaren 6tik 16ra, Piper Txuriak alkartearen maskulinidade ez patriarkalen gaineko argazki erakusketea egongo da. Gainera, talde horretako Juan Manuel Feito egongo da lehenengo eta azken egunetan, 18:00etan, ekintza bat dinamizetan eta berbaldia egiten. **6. orrialdea**



### IGORRE

## Doluaren gaineko dokumentala eta mahai-ingurua

Igorreko Liburutegiak antolatuta, heriotzea eta doluaren gaineko dokumentala eta mahai-ingurua egongo dira hilaren 3 eta 4an. *Mendian hil, hirian hil* dokumentala Igorreko Lasarte Aretoan ikusi ahal izango da barikuan, 19:00etan. Egilea be egongo da bertan publikoagaz berba egiteko.

Hurrengo egunean, zapatuan, goizeko 11:00etan, liburutegian izango da doluaren gaineko mahai-ingurua, Itsaso Bengoetxea zainketa aringarrietako mediku eta Marta Sariñena doluan espezializaturako psikologoaren eskutik. **6. orrialdea**



# Literatura txokoa

## ISILDUTAKO ESKUAK

Liburu honen egilea Jon Abril Olae-  
txea nafarra da. Idazleak trebetasu-  
nez andra beharginen lekukota-  
sunak batu eta isildutako ahotsak  
astiro-astiro agertarazoko dauz.  
Egileak zuri-baltzez egindako ar-  
gazkien laguntzeaz be, osotuko  
dauz andra langile batzuek bizitako  
pasarteak Euskal Herrian pasau  
dan mendean. Aburik *Isildutako  
eskuak* liburugaz Tene Mujika sa-  
ria irabazi eban.

Egilea kazetaritza lizentziadua  
da eta kazetaritza lanak, bidaietako  
kronikak eta ipuinak argitaratu izan  
dauz. 2016an *Neskatoak* doku-  
mentalala zuzendu eta autoeditatu  
eban, Ipar Euskal Herrira eta Fran-  
tziara beharrez joandako andren  
gainean. Liburuan agertzen dan  
lehenengo testigantza be doku-

mental horretan agertzen da.

Hamaika izan ziran andrak  
ibilitako lanbideak, eta hamaika  
lanbide aukeratu ebazan idazleak:  
neskatoak, irakasleak, espartingi-  
leak, sareginak, unaiak, papergi-  
leak lantegi baten, zigarrogileak,  
arrain nahiz barazkien konserba  
beharginak... Andra batzuen be-  
gietatik eta kontakizunetik Euskal  
Herrian zeharreko bidaia propo-  
samena egiten da. Isildutako esku  
horreek andrenak izan dira, euren  
ahotsak lez. Liburu honek andra  
horreetako batzuei ahotsa emon  
gura deutse guztien izenean euren  
ekarpen sozial eta historikoa  
ikusgarri egiteko, isildutako eskuak  
argitara ekarteko.

Halanda be, gaur egun lez, an-  
drek, gehien bat, zainketan behar

egiten eban, eta soldatea maila  
apaleko sektoreetan, esaterako  
elikagaien enpresetan, lortzean  
eben. Sasoi horretan be andrek  
soldata arrakala sufridu behar  
izan eban; hau da, enpresa baten  
lanpostu berean behar eginda  
be, gizonen soldatea handigoa  
zan. Horrezaz gain, askotan iru-  
zurra egiten eutsen eta ez eben  
segurantzaz soziala ordaintzen,  
eta gero ezin izan ebezan euren  
pensinoak euki. Horreek eta bes-  
te batzuk izan ziran bizi izandako  
gorabeherak.

Liburuak, baleiteke baliagarria  
izatea frankismoak eregitako  
iruditeria gainditzeko, andrek ez  
ebela etxetik kanpo beharrik egin  
gerra ondoko Euskal Herrian. Bes-  
talde, istorioetan gauza bereziak

topau geinkez, barbarako, zelan  
sortu zan "azul Bergara" kolorea  
eta zer ezaguna izan zan urte as-  
kotan. Eta beste bitxikeria batzuen  
artearen, egia ete da Gipuzkoako  
oihal lantegi baten egin ziralda  
lehenengo unai-prakak gero Es-  
tatu Batuetara eroan eta mundu  
osoan ezagunak egin ziranak? *Isil-  
dutako eskuak* lana, interesgarria  
eta beharrezkoa da gure memoria  
kolektiboa osatzeko.

**Ane Miren Rilo**



**Jon Abril**

***Isildutako eskuak***

**Elkar argitaletxea, 2022**

**248 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112  
**Guardiako farmaziak**  
09:00etatik 22:00etara  
**Urri bi. 30etik zehendiaren 5era**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908  
**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.  
**Zemendiaren 6tik 12ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048  
**22:00etatik 09:00etara**  
Melero. Amorebieta-Etxano.  
**Zemendiaren 13tik 19ra**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305  
**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardianik egiten.  
**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**  
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 600 74 63  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 01 85

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Arratiako Udalen Mankomunitatea** 94 631 17 17 / [mankomunitatea.arratia@bizkaia.org](mailto:mankomunitatea.arratia@bizkaia.org)  
**Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea** 94 631 55 25 / [gorbeialde@gorbeialdea.com](mailto:gorbeialde@gorbeialdea.com)  
**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79  
**IKE** 94 673 62 51 / [kulturetxea@igorre.net](mailto:kulturetxea@igorre.net)  
**Euskotren** 94 433 33 33 / [euskotren.eus](mailto:euskotren.eus)  
**Areatzako Notariotza** 94 673 92 26  
**Errota Fundazioa** 688 854 543 / [info@errotas.com](mailto:info@errotas.com)  
**Arratiako Musika Eskola** 94 631 73 52 / [www.arratiakomusikaeskola.eu](http://www.arratiakomusikaeskola.eu)

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.  
**3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.  
**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.  
**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.  
**3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.  
**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro.



Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.  
**3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Ubideitik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.  
**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.  
**3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.  
**3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao**  
**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20. \*Basauriraino bakarrik.  
**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20. \*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.  
**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.  
**Ugaotik Arteara.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.  
**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.  
**Ugaotik Igorrera.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.  
**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.  
**Arrigorriatik Zeberiora.** Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.  
**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria). **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-  
eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu  
daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren*  
*bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzitu, banatu, jente-aurrean  
komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatu eta egileta  
aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

**Arantzazu**  


**Areatza**  


**Artea**  


**Bedia**  


**Dima**  


**Igorre**  


**Lemoa**  


**Ubide**  


**Zeanuri**  




# Bizkaia

*foru aldundia  
diputación foral*

## ZEURE BERBEA

### Alkar ikusiko dogulakoan nago

Greba egunak aldarrikatzeko balio dau, baina greba ez da egun bateko kontua. Zelan egiten dogun bidea (jentea aktibetea; saretzea; argudioak plazaratzea...) baita ondoren egingo dogun lana oso garrantzitsuak dira. Arratian jada herri desbardinatoko andrak batu gara horretarako.

Konziente gara danok ez dogula greba egiteko eskubidea. Lan batzuk ezin dira egin barik itxi. Zaintzen ezinbestekotasuna agerian jarri eta nork eta zein baldintzatan zaintzen dauan azalaratzeko be balioko dau.

Orokorra izan gura dau danon bizitzen inguruan dihardugulako eta hori dala-ta, aldaketak egiteko danok hartu behar dogu ardurea.

Eta zelan ez feministea izango da edo ez da izango: feminismoak sistema kapitalista, heteropatriarkala, kolonoalista eta errazteia salatzen daualako.

Baina zer da zaintzarako eskubidea? Persona guztiek, bizitza osan zehar, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jasoteko eskubidea da. Hau da, danok interpeletan gaitu, bardin da zelangoak garan, gure adina, sexua, jaioterria... Zeu be beharrezkoa zara greban!

**PILI ALVAREZ MOLES. ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXXIV). Kale berbakunea sustatu guran

#### IN-KOMUNIKABIDEAK:

- Konturatu **haz** motel? Ukrainako guduen gainean **etxauriek** ezer esaten jada...
- Bai, oin fokua aldatu egin **jauriek!!**
- Esan lei Palestinarik ez dala egon oin arte...
- NATO eta bere betiko estrategia!
- Lehenengo estatu kolpea bultzatzen **jauriek** eskoi muturrekoak gobernuan ipinteko Kiev-en.
- Gero bake akordioa zapuztu!
- Eta oin 400.000 ukrainar gudura bultzatu eta biziak galdu eta gero, apurka-apurka asuntua ahiztutea gura **jauriek**.
- Armen industria pozik...
- Eta herria birrinduta.

## ERETXIA

### Euskerearen ofizialtasuna kolokan

**U**dallerri euskaldunek eta UEMAKo kideok hamaika errazoi daukaguz Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek zemendiaren 4rako Bilbon deitutako manifestazioagaz bat egiteko. Izan be, gurean euskerea ofiziala danetik dozenaka urte pasau diran arren, hamaika urte daroaguz gure ohiko jarduna mugatu eta oztopatu gura daben epaiak pilatzen. Azken aste eta hilabeteotan EAEko Justizia Auzitegi Nagusitik zein Espainiako Auzitegi Konstituzionaletik heldu diran epaiak horren lekuko dira.

Epai honeek bete-betean eragiten deutsee UEMAK eta udallerri euskaldunek urte askoan egindako lanari eta zabalduetako biderei. Hizkuntza-plangintzak egitea edota euskerea lehenestea baliobakotu gura dabe, beste kontu askoren artean. UEMAK eta udalek helburuen artean daukie udalerritan euskerea normalizetea eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzea, eta sententzia honek oztopoa dira horretarako, euskerearen normalizazioa bera ipini dabelako ezbaian auzitegiek. Euskerea lehenestearen kontra egin dabe, gaztelania bazterte dalakoan. Ez da halakorik, ostera: minorizautako hizkuntza sustatzea da, guztion eskubideak bermatzeko.

Udallerri euskaldunak dira euskeraz funtzionetako neurri gehien hartzean dituen eremuak, eta gune honeen premia gorria dauka euskereak. Baina aurrerapausuak emoten jarraitzeko udallerri euskaldunak ezinbestekoa dabe lege-babesa.

Eusko Legebiltzarrak konsensu zabalagaz onartu eban epaitegiek baliobakotu gura daben Udal Legea. Beraz, epai honek euskerearen bizibarriztearen kontrakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak be badira. Azken baten, herritarren



### MAIALEN ZUAZO AURREKOETXEA

UEMAK o euskera teknikaria

eta udalen erabakimena ipinten dabe auzitan.

Epaien larritasunaz harago, tesuingurua be esanguratsua da. Izan be, argi dago azken aste eta hilabeteotakoak ez dirala sententzia isolatuak, podere judizialek hizkuntza politika aurrerakoak mugatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak murrizteko ebatziaren eta oldarraldiaren erakusle baino. Ez da kasualidadea epai guztien oinarria zein dan: gaztelerearen nagusitasuna ezartzen dabe eta, beraz, legeak aitortzen deuskun euskerearen ofizialtasuna ipinten dabe kolokan.

Egoerea larria da, eta oldarraldi honek ederto islatzen dau udallerri euskaldunak zelan aritzen diran oindino be, euskeraz jardute hutsagaitik. Zoritzarrez, hau guztiau UEMarentzat ez da barria. Urte askoan, arazo ugari izan ditue udalek, epaitegiek euskerearen normalizazioari galga ipini gura izan deusielako: aktak euskeraz egiteko debekuak, udalak UEMAn sartzeako trabak eta abar. UEMAK epaitegien ezpatapean egin ditu urte asko. Eta sententzia honek barriro garoz orduko egoerara.

UEMAK urte asko daroaz bidea zabalduen, eta ez dogu onartuko hainbeste urteren ondoren oin atzerantza hastea.

Horregaitik, erantzun egin behar dogu. Batetik, nahikoa dala esateko. Oldarraldi judizial hau eten eta salatu egin behar da. Beraz, UEMAK bat egiten dau Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako manifestazioagaz. Zemendiaren 4an Bilbon izango gara, euskerearen kontrako ebatzi judizial honeen kontra agertzeko. Baina bestetik, baita euskereak bizibarrizteko behar dauan orube sendoa eta benetako lege babesa eskatzeko be. Oldarraldi honek erantzun juridiko sendoa be behar dau-ta. Euskerearen sustapenak pausu erabakigarriak behar ditu, lege esparru erabarrituagaz batera, holangorik barriro gertatu ez daiten.





## LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Biosfera  
erreserbak

**E**usko Jauriaritzaren web-gunean definizio hau dago: "Biosfera Erreserbak Unescok bere Man & Biosphere programearen barnean sortutako figurak dira, eta hiru helburu daukiez: natura konserbetea, garapen jasagarria eta laguntza logistikoa, ezagutza zientifikora eta jasangarritasunerako hezkuntzara zuzendua". Definizioaren barruko kontzeptu batzuk argi daukaguz danok; danok dakigu zer dan natura konserbetea, eta danok dakigu zer diran ezagutza zientifikoa eta jasangarritasunerako hezkuntzea. Baina antza denez, danok ez dogu bardin aituten zer dan garapen jasagarria. Emoten dau batzuen us-tez Urdaibaiko Biosferearen Erreserban Guggenheim bat sartutea garapen jasagarria dala, eta pare bat gogoeta egin gura neukez.

Badakit danok dakizuela munduko ia-ia espezie guztiak, animalia zein landara, gainbehera doazela; ia-ia espezie guztiak gero eta indibiduo gutxiago daukiez.

Baina danok ez dozue jakingo hiru espeziek gero eta indibiduo gehiago daukiezala; honeexek dira: arratoia, labezomorroa (kukaratxak) eta *homo sapiens* (geu). Eta *homo sapiens* gora egiteak, gure densitatea handi tzeak, naturearen suntsipena baino ez dakar; ingurumenean eragiten dogun presinoa gainerako espezie guztien kalterako izaten da. Beraz, lehenengo gogoetea: Urdaibaiko Biosferearen Erreserban Guggenheim bat sartuteak gizakiok ingurumenean eragiten dogun presinoa gutxitu ala handitu egingo leuke? Esango neuke ez dala oso listoentzako itauna, baina egoera ikusita, itauna egin beharra ikusi dot. Horren orpotik oso listoentzako ez dan beste itaun bat jatorku: gizakion presinoa handituteak natureari mesedea ala kaltea ekarriko deutso?

Bigarren gogoeta eredu sozioekonomikoari lotuta dago: euskaradun eskualdeetan turismoa baino sustatzen ez dauan eredu ekonomikoak zelango inpaktua dauka euskerearen erabileran eta jatorrizko kulturari? Itaun hau aurrekoak baino sakontuagoa da, baina horren adibide bat Urdaibain bertan daukagu. Oin urte asko ez dala, Bermeora joan eta arrantzarako itsasontziak baino ez genduzan ikusten; gaur egun, "*embarcación de recreo*" dalakoa besterik ez da ikusten; hau da, eredu sozioekonomikoa aldatu egin da, guztiz. Ba... Bermeon egindako azken ikerketen arabera euskerearen erabilereak behera egin dau, umeen artean be bai. Atera kontuak!

## ZERTZEAN



EÑAUT INTXAURREAGA

## Gaia jarrita: "Hitz hotzak"

1

Motxila bat lurrean lepo baten faltan fruta aleak deslai eguzki-galdatan hilarri bat haustuta milaka puskatan ta Daviden izarra armaren kulatan.

2

Otoitz isila eten nahian sirenotsa *checkpoint* gainetik hegaz negarrez mirotza taupa ta taupa ozen balaren bihotza eta hondar artean haur baten jaiotza.

3

Arabiarren harri bidezko intifada aurrez aurre juduen misildun armada beste orrialde bat hau ere baltza da ta idatzi ezinda *Heba Abu Nada*.

4

Ta biktimak nortzuk ta ur ta lur lapurrak ortzimugak iluntzen ez dira samurrak esperantzak abailtzen dakien maltzurak poza erailtzen daben izaki makurrak.

5

Ta gu mendebaldetik begira gabiltza hitz hotzen bilaketan aurkituz hots hitza ta honen aurrean zer? alkartasungintza giltza ez daukagu baina hartu daigun hitza.


Doinua: Txuriko

## BEGI TXINDORRA

**E**ta atzenean ailegau da. Uda luze eta kiskalgarriaren ondoan, gogaitzeraino kiskalgarria, atzenean udagoiena ailegau da. Ha baina, bere freskurea eta arrastietako zehar-argi lasaigarria da-borduko doguz lagun. Ez dago udagoieneko koloreak lakorik. Orbelen gorri eta beilegi horreek ikuskizun ederra osatzen dabe, baina ederrena, duda barik, argia, argazkikoa lakoa.

Gaur, klima aldaketeak gure udagoiena be arriskuan ipini dau, nik ez neuke urte sasoi hau sekula galdu gura, batzuek sasoi honetan tristetzen dirala esan arren.

Alvaro Rabelli



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**BEER & EDARIAK**

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

**agoa**  
hagin klinikak

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikabegata Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06



BEDIA

## Pobreziaren kontrako jaialdia antolatu dau Caritas Arratiak

Zemendiaren 18an, Bediako frontoian izango da jaialdia. Zozketarako txartelak euro bitan salgai dagoz eta batutako dirua Ginea-Bissauko osasun laguntzarako Ekuma proiekturako izango da.


### Erredakzioa

Oin dala zazpi urte hasi zan Caritas Arratia pobreziaren kontrako eguna ospatzen, urte bakoitzean Arratiako herri baten. Aurten Bedian izango da "Ez emon leporik behartsuari" lemapean. Jaialdia, 18:00etan hasiko da eta jantzak, bertsoak, Bediako koruaren emonaldia, zozketea, antzerkia, trikitaliak eta txokolata egongo dira. Jasotako dirua, Ginea-Bissau oftalmologia, ginekologia eta kirurgia materiala erosten lagun-

duteko da. Bediako farmaziakoak eta bere talde medikuak, Coopera Euskadi GBEn Ekuma proiektuan parte hartzean dabe. Urtean bitan GKE honetako mediku talde bat joaten da hara ebakuntzak egiteko.

### Zozketea

Zozketea izango da dirua batzeako modua. Lau smartbox, txakolindegian menuak, hiru otzara, ipuinak, Athletic-eko kamiseta bat eta Lekue haragitegiko bale bat zozketatuko dira.



LEMOA

## Udagoieneko produktuak erosteko aukerea Arlonagusiaiko merkaduan

### Erredakzioa

Lehen sektorea eta bertako produktuen zuzeneko salmentea bultzatzeko asmoz, Lemoako Udalak XXIV. Nekazaritzako Elikagaien Azokea antolatu dau zemendiaren 12rako, 10:00etatik aurrera, Arlonagusia plazan.

Urtero lez, udagoieneko base-riko produktuak erosi ahal izango dira bertan, ekoizleen 20 salmahaietan. Barazkiak eta landare-konserbak, Bizkaiko txakolina, euskal sagardoa, ezti, ogia, euskal pastela eta gozoak, gaztaia eta txarkuteria eta haragi-konserbak, besteak beste erosi ahal izango dira bertan. Taloak egingo ditue txosnan eta Kittu musika taldeak alaituko dau giroa.

XXIV. NEKAZARITZAKO elikagaien AZOKA



XXIV FERIA agroalimentaria

ARRATIA

## Hilaren 14an hasiko da Arteterapia ikastaroa

Zemendiaren 14an, 17:30ean, abiatuko da Ilogor

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako Arteterapia

ikastaroa Ilogorreko Kultur Etxean. Hurrengo egunean, hilak

15, 18:00etan, hasiko da Arteko Kultur Etxean, *Contra la*

*banalización del feminismo* liburuaren lanketea.

### Erredakzioa

Ikastaro bi honetarako izena emon daiteke foiletan agertzen dan QR kodea eskaneauz; AUMeko webgunean, egoitzan bertan edo 94 631 17 17 eta 688 627 392 telefonoetan edo udaletxeetan.

*Arteterapia* ikastaroa martitzenetan izango da eta ordu biko hiru saio izango ditu: zemendiaren 14an, 21ean eta 28an, hain zuzen be. Partaideek "Gorputzaren kontzientziatik, auto-entzuketatik eta sormen adierazpen asketik abiatuta (jantzea, pintura, musika eta eskultura, besteak beste), tresnak aurkitu ahal izango ditu bere buruari entzuteko, behar eta desio sakonak identifiketako, eta horreek adierazteko.

Hurrengo egunean, Maria Gorosari *Contra la banalización del feminismo* liburuaren lanketearen lehenengo saioa izango da. Zemendiaren 15etik aurrera,

18:00etatik 19:30era, atalka landuko da liburua hileko hirugarren eguaztenetan. "Liburuaren irakurketak harituko dauan formakuntza eta hausnarketa kritikorako lan taldea, bakoitxak bere kabuz liburua irakurketea eginaz, saio bakoitzean atal bat landuko da". Saio batzuetan liburua egilea egongo

da, hausnarketa kritikoa gidatuz.

### Gainontzekoak

Andra migratzaileen artean sareak egiteko tailerrak hiru saio izango ditu zapatuetan; lehenengoa, urtailaren 13an. Bertan, Arratian bizi diran andra migratzaileek euren migrazio prozesuak landuko ditue Johana Muñoz trebatzailearen laguntzeagaz Lemoan.

*Osasun mentala eta generoa* tailerrak, *Autodefensa feminista* ikastaroak, *Emakume mugimenduen erantzun tresnak* formakuntza ikastaroak, *Bizikletaz bidaiatzen* solasaldi eta tailerrak, *Arte-drama laborategia* antzerki tailerrak eta *Ilogor lurrari lotu eta hegoak zabaldu* lan saioek osotuten dabe 2023-2024 ikasturteko eskaintzea. Ikasturte amaieran itxiera saioa eta ospakizuna egongo da, jardueren ebaluaketa egin eta proposamen barriak batzeako.



DIMA

## La apostasia de las putas liburuaren aurkezpena antolatu dau Andraizeak

### Erredakzioa

Dimako Andraizea talde feminista antolatuta, zemendiaren 10ean, 19:00etan Gorra Mola Landinen *La apostasia de las putas* liburuaren aurkezpena egingo da liburutegian. Zemendiaren 10era arte be emon daiteke izena hilaren 18an emongo dan neska gazteentzako *Autodefensa feminista* tailerrera, eta hilaren 17an, 19:00etan, Ana Goitiak *Andra lodi baten egunerokoa* umorezko bakarriketea egingo dau eskolako kamaran.

*La apostasia de las putas* eleberrian, Molak biolentzia erabiltzen dauan autodefensa feminista bat imajinetan dau: bere gizonak Magally hiltzen dauanean, alkar babesteko zin egin eben bost andra agertzen dira eta bakoitxak biktuario bat hil beharko dau.



Andraizeak antolatutako *Autodefensa feminista* tailerrera izena [andraizea@gmail.com](mailto:andraizea@gmail.com) helbidean emon daiteke hilaren 10era arte. Tailerrean, eraso sistematikoa aurrean beharreko

erantzunak ikasiko dabez partaideek. 10:00etan hasita, zortzi orduko ikastaroa izango da, bazkaldutako ordubeteko tarteagaz, Dimako eskolan. Edadearen arabera hiru talde egongo dira: 1998tik 2005era jaiotakoak egongo dira talde baten, 2006tik 2008ra jaiotakoak beste baten, eta 2009tik 2011ra jaiotakoak hirugarren baten.

### Ana Goitiaren bakarriketea hilaren 17an

*Andra lodi baten egunerokoa* andrek sufriduten daben edertasun kanon baten egoteko presioa kritikauko dau umorez Ana Goitiak. Kazetaritza ibilbide bat egin ostean, Goitiak ETBko Barre librean saioan egin eban bere lehen bakarriketea 2020an, eta 2022an hasi zan herriz herri bakarriketek egiten.



DIMA

## Beste maskulindade bat erakusteko argazki erakusketea egongo da Diman

*Gizonak berdintasunerantz pausoka. Gizontasun berri baten aldeko 24 irudi eta hamaika arrazoi izeneko argazki erakusketea egongo da zemendiaren 6tik 16ra Dimako Liburutegian, astelehenetik eguenera 16:30etik 19:30era.*

### Erredakzioa

Piper Txuriak alkartearen erakusketa honetako irudietan, maskulindade tradizionalari ez jagokozan rol eta jokabideak agertzen dira. Liburutegian izango da Juan Manuel Feito Guerrero alkarteko kidea, hilaren 6an eta 16an, berbaldua emoten eta ekintza bat dinamizetan. BEGITUREN galderak erantzun ditu Feitok.

### Zer da Piper Txuriak eta zergaitik erakusketa hau Diman?

Piper Txuriak 2008an sortu zuen gizon talde legez eta urte bi beranduago alkarte egin zuen gizaratek eskatutako ekintza molto handiari erantzun ahal izateko. Kideei maskulindadearen gainean hausnartzeko gunea eskaintzen deute eta gizarteari hezkuntza jarduerak eta sensibilizaziorako eta konzienzia-zinorako baliabideak.

Erakusketa honen helburua da maskulindade bardinzalea erakustea: aktiboa etxeko lanen erantzunkidetasunari jagokonez; emozinoak adierazoten dituana beste gizon batez berbetan; beste gizon batzuk gertutasun fisikoa bizi dauana; lankidetzaren hartu-emonak eregiten dituana beste gizon batzuk; bardintasunezko aitatasuna bultzatzen dauana; eta abar. Finean, "maskulindade barriak" deritzen edo maskulindade ez-patriarkalaren ezaugarriak deskribiduten doguz.

**Zelan ikusten dozu feminismoa gizonen artean? Erresistentziak gixitu eta hobera doala uste dozu ala atzera egiten gabiz?**

Feminismoa ez da bakarrik andren

ekimena, gizaki guztiona baino. Ezinbestekoa da norabide horretan aurrera egitea, lankidetzan, alkarren laguntzan, errespetuan eta besteakzko tolerantzian oinarritutako hartu-emonak eregiz. Feminismoa askapen bidea da gizonontzat be, eta persona lez daukagun potentziala handitzeko bidea be bada. Eraldatzeko eta gura dogun bizitza sortzeko daukagun ahalmen personalagaz konektetako testuingurua eta baliabideak eskaintzen deuskuz. Eta patriarkaduak gure sinismenak, pentsamentuak, sentimenduak eta portaerak zelan moldatu dituan ulertzen lagunduten dau.

Denpora guztian egiten dogu topo maskulindade tradizionala onartzen ez daben eta gizonen nagusitasuna sustatzen ez daben gizonakaz, ideologia nagusi patriarkalak sustatzen dituan balioez bestelako balioak dituan gizonakaz eta euren sinismenetan eta portae-ran lankidetzera, besteei laguntzea, errespetua, maitasuna, zainketak, besteakzko tolerantzia eta abar sustatzen eta praktketan dituen gizonakaz. Gizon honeek aurre egiten deusie beste maskulindade

mota baterantza arrastaka eroaten gaituan tsunami nagusiari, suntsitzailea dana guretzat, andrentzat, gazteentzat, gizarate osoarentzat eta naturearentzat. Gizonezkoen kultura eredu horrek ez dau funtzionetan, ez deuto inori mesede egiten, eta porrota da.

**Andrek biolentzia bako bizitzak bizi ahal izateko gizonak itxi egin behar deusie biolentzia egiteari.**

Indarkeria, patriarkadu eta kapitalismoaren adierazpena da. Ez dot uste gizarate zerbait danik, danok busti gaituan sistema bat baino. Gizonak, andrak eta beste gizon batzuk menderatzeko entrenetan ditu, indarkeriagaz ohituta biziteko eta eguneroko bizitzan erabilteko prest egoteko. Horregaitik gizonak ulertzen badabe zer onura ekarriko deuten sexismorik bako, menderatzerik bako, indarkeriarik bako eta bereizkeriarik bako bizitzak, ulertuko dabe baita be eredu maskulino tradizional horren kontra altxatzea eta beren sinismenak eta pentsamentua aldatzeko pausuak emotea komenidu jakiela.



IGORRE

## Mendian hil, hirian hil dokumentala eta heriotzea eta doluaren gaineko mahai-ingurua egongo dira Igorren zemendiaren 3 eta 4an

### Erredakzioa

Igorreko Liburutegiak heriotza eta doluaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu zemendiaren 3 eta 4rako. Barikuan, hilak 3, 19:00etan, *Mendian hil, hirian hil* dokumentala eskainiko da eta filmaren zuzendariak, Iñaki Peña Debagoineko Ospitalean zainketa aringarrietan lan egiten duan mediku mendizaleak, berbaldua egingo dau Lasarte Aretoan. Hurrengo egunean, 11:00etan, mahai-ingurua egongo da liburutegian. Bertan, Itsaso Bengoetxea, Galdakaoko Ospitaleko zainketa aringarrietako mediku espezializadua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazio Batzordeko presiden-



teak, eta Marta Sariñena, doluan espezializautako psikologo eta terapeuteak hartuko dabe parte.

DIMA, LEMOA, ZEANURI

## Aurrekontuetarako batzarrak egiten dabiz Dima, Lemoa eta Zeanuriko Udalak

### Erredakzioa

Diman, urri bigarrean egin dabez udal ordezkariak auzotarrak batzarrak, 2024ko udal aurrekontuetarako euren eretxi eta eskarien barri jasoteko. Lemoako udal ordezkariak herritarrekaz batuko dira zemendiaren 3 eta 4an. Zeanurin, sei bilerak egin ditue urri bigarrean, eta zazpigarrena zemendiaren 6an izango da.

Lemoan, zemendiaren 3an, barikua, izango dira udal ordezkariak, arrastiko 18:30etik aurrera, Arraibi auzoan, udaletxeko pla-

zan, datorren urteko aurrekontuetarako proposamenak batzeko. Hurrengo egunean, anbulatarioko arkupeetan egongo dira udalekoak, goizeko 11:30etik aurrera, herritarren ekarpenak jasoteko.

Zeanurin, Eleizondo, Uribe eta Otzerimendi, Alzuaga eta Undurraga, Asterria, Alzusta eta Ipiñaburuko bizilagunen ekarpenak jaso otean, Plaza, Igertualde, Gurutzalde, Orue, Soloeta eta Landagutxikoen ideak jasoko ditue hilaren 6an, 19:30ean, Kultur Etxean.

Arretasio Herri Lezetxeak

# Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre





LEMOA

# Akordiora heldu dira Ilunion Lavanderian

Urri bigarrenaren 11n, sinatu zan akordioa. Bertan, enpresek negoziatzeko egutegi bat egiteko eta Bizkaiko garbitegi guztientzako hitzarmen kolektiboa negoziatzeko mahaia bultzatzeko konpromisoa hartu eban.



### Erredakzioa

Baita, beharginen lan baldintzetan hobekuntza batzuk egiteko be. Hori dala-ta, enpresako langileen batzordeak mobilizazioak amaitutea ebatzi eban.

Holan, 2024ko lanaldia 7 ordu murriztuko da, 1.747tik 1.740 ordua pasauz eta 2023ko soldatean KPlren igoerea (%5,7) izango dabe eta 2024an be KPlaren igoerea izango dabe, baina KPIa %4 baino gutxiago bada, gutxienez %4ko igoerea izango dala. Enpresek atzerapenak be ordaindu beharko dauz.

### Gitxieneko soldata eta kale-razteak

Akordioa sinatzean, amaitu ziran beharginak egiten ebilzan mobilizazioak. Izan be, ELA, LAB eta CCOO sindikatuek osotuten

daben langileen batzordeak lau greba egun deituta eukazan, urri bigarrenaren 10, 11, 17 eta 18an. Horreen aurretik, konzentrazioak egin ebezan beharginek lanlekuaren aurrean, urteak darozala gitxieneko soldata jasoten eta euren lan baldintzak penagarriak dirala salatuteko, eta enpreseari negoziatzeko exijiduteko. "Oso une gogorak bizi izan doguz enpresan, tartean, atzen EREa (kaleratze kolektiboa). Enpresea hobeto doan honetan, zilegi zan enpreseari etekinen zati bat bananduteko eskatzea, soldata handituz. Batzordetik, eskertzen deusuegu kontzentrazioetan egin dozuen ekarpena; zuen laguntza gure indarra da, eta zuek barik ezin izango genduan egin, egin doguna" azaldu eutsen batzordeak langileei ohar informatibo baten.

LEMOA

# Konsumo bonuak erabilgarri dagoz abenduaren 15era arte

### Erredakzioa

Lemoa urreztatzen, Lemoako merkataritza eta ostalaritza alkarteak eta Udalak, 1.500 bonu ipini ditue salgai herriko merkataritza bultzatzeko eta kosumitzaileari dirua aurrezten lagunduteko. Izan be, 10 eurotan erositako bonuek, 15 euroko balioa daukie kanpainari lotutako establezimentuetan. Zehazkiaren 1ean hasi zan eta abenduaren 15era arte iraungo dau kanpainak. Bonuok komertzio honeetan erosi daitezke: Merceria Josier, Txi-

meleta, Batzoki Lemoa, Kresala, Argazkilune, Laiane Ilepaindegia, Farmazia Lemoa, Amorrortu, Lezat eta Bizkarran, hain zuzen be.



IGORRE

# EAEko Auzitegi Gorenak Irune Costumerok ipinitako helegitea atzera bota eta Murilloren absoluzinoa berretsi dau

Auzitegi Gorenak atzera bota dau Irune Costumerok ipinitako helegitea eta Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputadua eta Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuko hiru funtzionarioen absoluzinoa berretsi dau.

### Erredakzioa

2021eko bagilean egin zan epaiketean. Costumerok prebarikazio, tratatu txar eta lesino psikologikoen delituak leporatu eutsezan Murillo eta BFAko Haurren zerbitzuko. Izan be, alabearen zaintza partekatua agintzen eban ebatzia egon arren, BFAk alabearen zaintza bere gain hartu eban, eta umea aitari itxi eutsan, zaintza partekatua agindu eban epaileari konsultau be egin barik. Probintziako Auzitegiak absolbidu ebazan Bizkaiko Foru Aldundikoak.

Costumerok epai horren kontrako helegitea ipini eban baina EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota eban 2021eko zehazkiaren 4an. Auzitegi Gorenera jo eban orduan, eta

honek be helegitea atzera bota dau eta Gizarte Ekintzako diputadua eta BFAko Haurren Zerbitzuko funtzionarioen absoluzinoa berretsi dau. Oin Costumerok helegitea aurkeztuko dau Espainiako Auzitegi Konstituzionalean.

### Guraso Alienazio Sindrome faltsua

Irune Costumerok Bizkaiko Foru



Aldundia salatu eban Gurasoen Alienazioaren Sindromea (GAS) faltsua argudiatu kendu eutsielako alabearen zaintza, modu bortitzean, 2017an.

Sindrome hori, nazinoarteko erakunde mediku eta psikiatrikoek onartu ez arren, prozesu judizialean apliketan da amei umeak kentzeako, aita ikusi gura ez daben umeek sindrome hori daukiela esanez. Hori dala-ta, NBEko errelatoreak Espainiari "esplikazioak" eskatu eutsazan Costumerori GASa aplikau izanagatik 2020an, eta epaia jakin zanean, Irene Montero Espainiako Berdintasun ministroak be babesa heldu arazo eutsan Costumerori.

BEDIA

# Bola jokoa eta baba jana San Martin egunean

### Erredakzioa

Sasoi baten txarria hilteko eguna izaten zan zehazkiaren 11, San Martin eguna, eta egun, leku askotan, San Martin izenpeko ermiten inguruetan batez be, txarriak jaten ospatuten dabe egun hau.

Horretarako aukerera egongo da Bedian. Izan be, Udalak txixi-burduntzia eta baba jana prestatu ditu beste ekintza batzuen artean. Mezea, Ereñoko San Martin ermitan izango da; bazkaria, bariz, frontoian. Hori dala-ta, edadeko pertsonak eta mobilidade arazoak

daukienez Udalak ipinitako ibilgailuak erabili ahal izango dabez Eroso-Ugartetik frontoira joateko.

### Zehazkiak 11, zapatua

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren oroimenez. Bediako plaza-tik urtenda.

10:30etik 12:00etara, txixi-burduntzia, Bediako gazte trikitilariet girotuta.

12:00etan, mezea San Martin ermitan.

12:45ean, bola jokoa eta zozketa.

14:30ean, baba jana eta erromeria frontoian.



**Kili-Kili**  
Amopu eta Puzitza  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 43 81

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**  
Bilatu dago jabetza Badau dago proiektu  
-Salmentan zein alokairuan  
Lurak (eskizak, landak, bosak...)  
ETHEZIK (buzak, bosak, etak...)  
Garaioak  
Lokal komertzialak  
Pabiloiak...  
-Solozkoak  
Erakiri berriak erakitzeko  
Etelorak  
Arkitekto-proiektuak  
-Borne diseinua  
-CEE eta IEE-ak  
-Hirigintza ohikuaritza  
-Negozioak irekitzeko  
kudeaketa  
arratia INMOBILIARIA  
Lizentziatua Agirre 25, Lezea - Igore  
Telefonoa: 94 673 81 81 - 45 16 35 35  
Gizakia: 94 673 81 81  
Gizakia: 45 16 35 35

**Olaetxe**  
Graduazioak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begi-ko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa - Fiskala - Lanakoa - Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



## ENDIKA URIARTE

# "Lehen gazteen hizkuntza zan euskañola, oin danera zabaldu da"

Endika Uriarte Igorrekoa, euskera eta gaztelaniaren arteko kode alternantzia, "euskañola" deritxana eta ergatiboa landuten dauan doktorego tesia egiten dabil. Hori izan zan bere master amaierako lana eta Euskaltzaindiaren Mintzola proiektuak saritu dau ikerketa proiektu hori.

Urri bigarrenaren 18an egin eban aurkezpena Donostiako Euskaltzaindiaren egoitzan, beste sarituakaz batera.



## Erredakzioa

Uriartek, Euskal kultura eta Hizkuntza modernoak gradu bikoitza ikasi eban Deustun. Ostean, Mondragon Unibertsitatean, DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen dauan Unibertsitate Masterra egin eban eta azken urte honeetan Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzako masterra egin dau EHUan.

Lanari jagokonean, ingeles irakaslea da Ibaizabal ikastolan.

**Euskera eta erderearen arteko alternantzia eta ergatiboa hartu dozu tesirako gaitzat.**

Euskal Filologia eta Hizkuntzala-

ritzako masterra egiten nengoala sortu jatan grina hori eta masterran egin behar danez ikerketa lan bat amaieran, pentsau neban gai hori hartzea: kode alternantzia euskera-erdera, euskañol esaten dana, eta ergatiboa. Ergatiboa da nork kasua. Bi arlo horreek oso gitxi ikertu dira, bakarrik artikulu bi dagoz horren inguruan. Orduan pentsau genduan beharrezkoa zala. Alternantzia hori gaur egun danean dago eta ergatiboa be bai. Gero aurkeztu genduan kongresu baten Gasteizen, eta esan euskuen interesgarria dala eta segidu ahal dala hortik.

Ostean, Euskaltzaindiako Mintzola egitaspora bialdu genduan, egitasmoak euskerazko ahozko

"Euskaltzaindiako Mintzola egitaspora bialdu genduan, egitasmoak euskerazko ahozko jardunaren gaineko ikerketak sustatu gura ditualako, eta gure ikerketea saritu eben. Saria, 1.500 euro eta master amaierako lan horren artikulu bat publiketea da"

jardunaren gaineko ikerketak sustatu gura ditualako, eta gure ikerketea saritu eben. Saria, 1.500 euro eta master amaierako lan horren artikulu bat publiketea da, Euskaltzaindiako Euskara aldizkarian. Urtea amaitu baino lehen bialdu behar da artikulu eta horren aurkezpena Donostiako Euskaltzaindiako egoitzan egin genduan, urri bigarrenaren 18an, beste saridunakaz batera.

## Zelan dago ergatiboaren osasuna?

Nik hartu neban kasu baten azterketea, beste kontrol talde bategaz konparetako. Ezaugarri antzekoak daukazan beste kontrol talde bategaz, bai adin aldetik, bai hezkuntza aldetik. Eta ikusi zan, euskerazko esaldietan nork hori isildu egiten dala, behar ez dan tokian ipini... Gero beste ariketa bat be erabili genduan, euskerea eta erdereak biak nahastuta; adibidez subjektua euskeraz eta predikua erderaz edo alderantziz. Emaitez erakutsi euskuen onargarritasun maila eukiela esaldiok, ergatiboa espero dan lekuan, ergatiboa agertu ala ez.

Kasu azterketa horregaz egin genduan alkarrizketa bat ikusteko erabiltzaileen *background* linguistikoa, euren ibilbide linguistikoa eta ikusi genduan ergatiboko "k" joan behar dan lekuetan, %33tan isildu egiten dala. Eta hori asko da.

## Horrek ergatiboaren erabilera arriskuan ipinten dau?

Euskerea bigarren ala hirugarren hizkuntza moduan ikasten dabizentzat ez da erraza. Euskerearen oso elementu arazotsua da, bai jakiekuntzan, bai gero prozesetako, baita gero ekoizteko be.

Gaztelaniak ez dauka ergatiborik eta kasu azterketa honek erakutsi dau gaztelaniaren eraginagaitik, %33k isildu egiten daula ergatiboa, ingurua oso erdalduna danean eta euskeraz bakarrik etxean edo amamaren baserrian edo dana dalakoa, egiten danean. Ohituta bazagoz gaztelania erabilertera eta hor ez badago ergatiborik, gero euskeraz egiten dozunean txip hori aldatu behar dozu.

**Eta txip aldaketa hori beharrezkoa da hizkuntzen alter-**

## nantzia?

Euskañol deritxan euskera eta gaztelaniaren alternantzia, gero eta zabalduago dago. Lehen gazteen hizkuntza zan batez be, baina oin danera zabaldu da. Ez da bakarrik digitalean erabilten: kalean, Bilbon... edozein lekutan entzuten da.

Hainbeste entzuten dan zeozer, ikertuta egongo zala pentsau genduan, baina ez. Ez dago ikertuta alternantzia horretan ergatiboa sartuta dagoanean zer pasetan dan ergatiboagaz.

Alternantzia horren errazoiak, zergaitik pasetan dan hori eta zein faktorek eragiten daben jakiteko gero eta ikerketa gehiago dagoz. Teoria asko dagoz. Bata da, hizkuntza bietan gaitasun handia badaukazu, bardin jatzula pasetea batetik bestera, edo beste teoria bat da, batean badaukazu gaitasun handia eta bestean ez hainbeste, bigarren horretan jardutean pasetan zarala gaitasun handia daukazu hizkuntzara. Biak ahal dira izan. Kasuaren arabera.

## Ze eboluzino edo ze garapen aurreikusten dozu euskañolari jagokonean?

Horretarako ikertzen jarraitu behar da. Oin gura dot segidu doktoretza tesian honegaz. Atzo (urri bigarrenak 23) euki genduan bekarako alkarrizketea eta proposatu da hau ikertzen jarraitutea, beste metodologia barri bat sartuta. Metodologia hori *eye-tracker* deritxana da. Helburua da ikustea zelako hartu-emoana dagoan hizkuntza alternantzia eta ergatiboaren artean.

## Ingeles irakaslea be bazara. Euskerara lotuagoko lan baten ikusten dozu zeure burua hemendik urte batzuetara?

Bai, oin nabil Ibaizabal ikastolan ingelesa irakasten. Tesia egiteko Eusko Jaurilaritzaren beka eskatu dot. Emoten badeuste hartuko dot eta horretara dedikauko naz. Ez badeuste emoten, segiduko dot ingeles irakasle eta datorren urtean ahaleginduko naz barriro Eusko Jaurilaritzako beka eta EHUkoa eskatzen; unibersidadean irakasle edo ikerketa taldeetan lan egin ahal izateko.



# ORTOMOBILITY

Zure mugikortasuna hobetuz  
Bizkaiko esposizio handiena, zuek gertu!



- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA
- ADINEKO PERTSONEN ZAINZTA ZERBITZUA ETXEAN



Txartel hau moztuta ekarri eta %5eko deskontua edukiko duzu, dendako edozein artikulutan, lehenengo erosketan.

**%5eko deskontua\***  
ORTOMOBILITY

\*Eskaintza hau ballagarria da abenduaren 15era arte.



www.ortomobility.com  
info@ortomobility.com  
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA  
946 738 203

## ERROTA KOORDINATZAILE BILA DABIL

**ERROTA**  
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

### ZER ESKATZEN DA?

- Goi mailako ikasketak izatea
- Aholkularitzan, berrikuntza arloan esperientzia izatea
- Enpresa eta administrazio arteko programak ezagutzea
- Euskara lan hizkuntza izatea
- Pertsonetara enpatia eta lanarekiko proaktibotasuna baloratuko da
- Eskualdeko enpresa ehunaren ezagutza baloratuko da
- Gidabaimena eta kotxea izatea

### ZER ESKAINTZEN DA?

- Orain 7 urte sortutako Arratiako garapen sozioekonomikorako proiektu sendo baten parte izatea



**ERROTAREN PARTE IZAN NAHI BADUZU, bidali zure kurrikulua [info@errotta.eus](mailto:info@errotta.eus) -era azaroaren 19a baino lehen**





## ZIKLO-KROSA

# Aurten ez da egingo Igorreko Nazinoarteko Ziklo-krosa

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 23an emon eben jakitera Igorreko Udalak eta Arratiako Ziklista Elkarteak ohar batez. Idatzian azaldu ebenez, helburua "indarrak hartu, egitura berregin eta 2024ra begira, gaur egun proba honek eskatzen dauan legez, ziklo-kros sendo eta eguneratu bat denporaz antolatzeta da". Horrezaz gainera, "eredu aldaketa" baten beharriaz adierazo eben, "jokoan dagoalako jasagarritasuna antolakuntza aldetik zein alde ekonomikotik".

Leire Aurrekoetxea AZEko presidenteagaz egon da BEGITU errazoietan apur bat sakontzeko, eta ereduaren aldaketa eta hartu daben norabidearen barri emoteko.

### Zergaitik ez da egingo Igorrentzat hain inportantea izan dan proba hau? AZEko zuzendaritzan erreleboa hartu zenduenean, Igorreko Ziklo-krosa antolatuteko be izan zan, ezta?

Bueno, dakizunez, AZE hartu genduan egun batetik bestera, nahiko ebatzi arin bategaz. Eta estruktura itzela hartu genduan. Izan be, AZEK egiten dauzan lasterketa eta jarduerak oso ezagunak dira estadu mailan.

Kadeteak, Gazteak, eskolea, goi mailako lasterketak... eta asko pentsau barik estruktura bardinagaz jarraitu genduan, dana manteniduguran. Baina horretarako lan eta diru asko behar da. Oin dala urte bi Kadete eta Gazteen lasterketea egin genduan eta 2022an, nazinoartekoa. Nazinoartekoak C1 eta C2 dira; C1 da maila altuena; hau da, nazinoarteko ziklistarik onenak ekarri eta sarietan diru gehiago emon behar da. Hori egin genduan igaz.

Aurten, 2023an, gure asmoa hortik segidutea zan, nazinoarteko ziklo-krosa egitea. Pentsau genduan C2 mailakoa egitea diru kontuak kontrolatuko. Baina zer pasau da? Hasi zan urtea eta ikusi genduan gure babeslerik garrantzitsuenetariko bat ez zala gugaz hartu-emonetan ipinten.

### Zein da babesle hori?

Murias. Gure taldea Murias Arratia deitzean da. Diru gehien emoten eban babeslea da eta horregaitik daroa taldeak bere izena.

Ez daukagu diru hori eta beraz, diru sarrerak gitxiagotu egin dira. Gainera, ez daukagu kotxerik. Gure kotxea justu-justu dago, urte eta kilometro pilo daukaz. Beraz, diru sarrera handi bat gitxiago eta beharriaz handi bat gehiago daukaguz. Orduan eskolearen etorkizunari begira, krisi baten sartu ginan.



Leire Aurrekoetxea.

Ez kotxerik, ez Muriasen barririk... Eta Udalak emoten dauzan dirulaguntzak lasterketea aurrera aterateko, oso berandu heltzean dira. Dirulaguntzak jaso aurretik euki behar doguz nazinoarteko fitxajeak eginda. Eta orduan esan genduan, *stop*, diru asko behar da eta ondo pentsetako astia hartu behar dogu. Dirulaguntzak eskatuteak be denpora asko eroaten dau eta emon behar dauanari azalpen asko emon behar jakoz: txostenak egin behar dira, memoria, udaltxeetan mila batzar...

Lasterketa asko egiten doguz: San Kristobalekoa eta Udaberriko Kopa tartean, eta beste ekintzetan be lagunduten dogu, Arratiako Maratoi Txikian esate baterako. Baina Igorreko Nazinoarteko Ziklo-krosa ezin da mantenidugure esfortzuagaz bakarrik. Hori da-ta urteko kirol ondare inportanteena Igorren. Kirol ondare bat da Igorreko Ziklo-krosa. Eta ezin da izan AZEren erantzukizuna bakarrik.

Saiatu behar gara babesle barriak lortzean, babesle gehiago, webgune bat be egiten gabiz eta laster aterako dogu. Gure kontuetan beste segurtasun bat euki behar dogu, ez eukiteko sensazioa aurrera goazela pentsau barik eta egitura hau guztia zelant mantenidugakin barik.

### Eskoleak jarraituko dau ikasleak ziklo-krosarako prestatuten?

Bai, egon gara lasterketa batzuetan. Eskoleak manteniduten dau ziklo-krosa, bai 14 urtera arteko Eskola Kirolan dagozan umeentzat, bai Kadete eta Gazteentzat be. Kadeteak eta Gazteak mailakoek parte hartu eben Medinako lasterketan eta Tolosakoan. Gero, Txiki Kopakoek be eukiko dabe euren lehenengo karrera (urri bigarrenaren 28an) Elorrioren. Igorren, Txiki Kopako finala egiten genduan eta hurrengo egunean Igorreko Ziklo-krosa. Aurten ez dogu eukiko ez bata ez bestea.

Baina bide onetik goazala uste

dogu: webgune barriagaz, memoria bat egiten eta babesle barri bat topetako ahaleginetan. Udalagaz be, gure krisialditxo bat izan ondoren, bide onetik, ziklo-krosagaz Udalaren beste inplikazio bat bilatuz. Inplikazio handiagoa eskatu dogu eta negoziazioak bide onetik doaz.

Dirua moldatuteko eta apur bat pentsetako prozesu honetan, ikusi genduan Kadete eta Gazte mailak, Igorren manteniduteak kostu handia ekarrela. Eta Kadeteak eta Gazteak hemen eukiteko kotxea behar da bai ala bai, lasterketarako asistentzia egiteko. Datorren urtean, Kadeteak eta Gazte mailakoak ez dira hemen egongo. Ziklo-kros lasterketak AZEko elastikoagaz egingo dabe, eskola honetakoak izango dira, baina Zornotzan eta Durangon egongo dira. Eurek ebatzi ahal dabe nora joan.

### Hori egin zan bere sasoiak Kadete eta Gazte mailako neskakaz eta AZE neska barik geratu zan.

Egingo doguna izango da 14 urtera artekoa indartu. Otxandioko umeek hona etorri gura dabe, Zeberiegaz be gauza bera pasau jaku. Bilbotik be bai... Orduan eskola moduan oso ondo gagoz eta jarraituko dogu.

Eskolea bera be hobetu dogu: pintau dogu, ipini doguz armarioak... Eskola bera garbitu, atondu dogu eta 14 urte arteko umeak manteniduko doguz, baina Kadete eta Gazte mailakoak Zornotza edo Durangora joango dira 2024ean.

Jarraituko dogu baita be, beste alkarte batzuei lagunduten, herrian gure papela handituten, Maratoi Txikian egin genduan moduan. Izan be, Spiuk markak emon euskuzan hainbat opari Maratoi Txikirako, eta holan umeek AZEgaz hartu-emon handiagoa eukiko dabe. Oso ondo jatorku be eskola aurrean dagoan Pump Track-a, ze horra etorten diran umeek galdeztzen deuskue, eskolearen barri.

## Igorre ziklo-krosaren katedrala

"Igorre eta Dimako Intxaurbizkar inguruan, Elgezua izeneko auzune txikia dago. XI. gizaldian, Santa Lutziko basiliza eregi zan han. Auzunea San Kristobal izenagaz ezaguna egin da, izan be aitaturako santua be gurtu egiten da bertan. Auzoko jai batzordeak Intxaurbizkar Kultur Elkarte legez ezagunak, gazte mailako lasterketa bat antolatuten eban, garagarileko jaietan: San Kristobalera Igoera izenekoak". Holan azalduten eben lasterketearen sorrera, sortzaileek.

Jai batzordeak 1977an lehenengo Ziklo-kros San Kristobal, Igorre antolatu eban eta 1980an Arratiako hainbat txirindularizalek, eta Igorreko Ziklo-krosaren "erruz", Arratiako Ziklista Elkarte sortu eben. Alkarte hau, Intxaurbizkar Kultur Elkarteak lagunduta, lasterketearen antolaketaz arduratu zan.

San Kristobalgo zirkuitua, "Ziklo-krosaren Katedrala" Igorreko herri barrutik hiru kilometrotara egoan. Ikusleak zirkuituaren edozein puntutatik, lasterketa osoa ikusteko aukerea eukien eta bertan egin ziran hamazazpi edizino.

Baina 1993an lasterketea Munduko Kopan sartzeak, Olabarriko zirkuitura aldatu beharra ekarri eban. Olabarriko hau herri barruan dago eta antolaketarako azpiegitura hobea dauka, nahiz eta ikuslearentzat hain ikusgarria ez izan. Olabarriko zirkuitua Munduko Kopako lasterketak egiteko egin zan.

Munduko Kopan egoteko, lasterketa gehiago egin behar ziran eta 2007tik aurrera masterren lasterketea egiten hasi ziran. Munduko Kopako araudia beteteko, dana dala, beste lasterketa bi falta ziran oindino eta horrek eskatzen eban gastuari aurre ezin eginda, Munduko Kopako txapelketea itxi egin eban Igorrek. 2011ra arte Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopako proba izan zan. Urte horreetan guztietan Igorre ziklo-krosaren erreferente izan zan. Hemen egon ziran Kevin Pauwels, Sven Nys edo Zdenek Stybar, esate baterako.

2012ko ziklo-krosa Munduko Kopako lasterketea izan ez arren, Euskadi Sari Nagusia izaten jarraitu eban "Euskal Herriko lasterketarik inportanteena" orduko AZEkoen esanetan, Naia Alzola eta Erlantz Uriarte egon ziran bertan eta EITBk transmitidu eban.

2013an, nazinoarteko proba izan zan barriro, B kategoriakoa eta kategoria guztietako ziklo-krosariak neurtu ziran orduan.

Hurrengo urtean, 2014an, Igorreko XXXVIII. Ziklo-krosa, Federazio Kopako lasterketea eta Euskadi Sari Nagusia izan zan.

2015ean Espainiak Kopako lasterketea jokatu zan.

2016an, Igorreko Ziko-krosean, Euskadi Basque Country Challengea jokatu zan. Lehenengoz, ETBn zuzenean emon eben andrazkoen lasterketea.

2017an, Euskadi Basque Country Challengeko proba eta Nazinoarteko proba izan zan.

2018an, XLII. edizinoan, lasterketa nazionala izan zan eta ez nazinoartekoa.

2019an, Nazinoartekoa izan zan barriro. Euskal Herriko eta Espainiak ziklistez gainera, Frantzia, Belgika eta Italiako maila handiko txirindulariak egon ziran gurean. C2 mailako nazinoarteko lasterketea izan zan.

2021ean, aurreko urteko etenaren ostean, eta Arratiako Ziklista Elkarte zuzendaritza barriagaz, Igorreko Ziklo-krosaren 44. edizino egin zan. Txiki Kopari emon eutsan amaierera Igorreko Ziklo-krosak. Bertan ez zan izen handiko txirindularirik egon eta umeek eta txirindularitza eskolek izan eben protagonismoa.

2022an, Nazinoarteko Ziklo-krosa eta Txiki Koparen finala jokatu ziran Igorren.





## XAKEA

# Igorreko Mikel Bengoetxeak irabazi eban Arratiako Xake Txapelketea Artean

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 22an jokatu zan Artean, Herriko Bentak antolatutako Arratiako Xake Txapelketea. Mikel Bengoetxea igorretarra izan zan garailea.

Hogeta hamar personak hartu eban parte, gehienak Arratiakoak, baina ez bakarrik eta "Euskal He-

rriko beste herri batzuetatik" etorritako jentek be hartu eba parte jakinarazo deusie BEGURI antolakuntzatik. Irabazleak bertoko produktuen otzarea izan eban sarizat. Antolatzailerek sano balorazino ona egin dabe bai deialdiari jagokonean, bai parte hartzeari eta baita jardureari berari jagokonean be.



## KIROL ASTEA

# Kirola eta ariketa fisikoa bultzatzeko kirol aukera zabala erakutsiko dau Lemoak

Zemendiaren 13tik 19ra bitarterako Kirol eta ariketa fisikoaren astea antolatu dau Lemoako Udalak herriko alkartean laguntzeagaz.

### Erredakzioa

Lemoan egin daitezkezan kirolak ugariak dirala erakutsi gura da eta bakotzak bere gustukoa topau ahal daua. Edade guztietarako aukerak egon arren, ume eta edadeko jentearengan ipini da aurten arretarik handiena. Urtero lez, Lemoatx Trail mendia lasterketeak emongo deusio amaierera kirol asteari 19an.

Txikerrenek, herri-kirolak egiteko aukerea izango dabe eguaztenean, hilak 15, ludotekan. Saio bi egongo dira, lehenengoan, 16:30etik 17:45era, 4 eta 8 urte bitarteko umeen txandea izango da, eta bestean, 17:45etik 10:00etara, 9 eta 12 urte artekoena. Zapatuan, hilak 18, zazpi urtetik gorakoek bizikleta ginkana baten parte hartu ahal izango dabe 11:00etan ikastetxean.

Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatu dau ekintza hau eta parte-hartzaileentzako opari bana egongo da. Egun berean, 09:00etatik 13:00etara, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek padelean edo frontenisean jokatu ahal izango dabe kiroldegian. Parte hartzeako norberaren erraketea eroan behar da. HH2ko umeetatik hasi eta DBH4ra artekoek, parte hartu ahal izango dabe 11:00etatik aurrera ikastetxean guraso alkarteak antolatutako IV. Duatloi Txikian.

Kiroldegiko ikastaroak zeintzuk diran eta noz emoten diran jakiteko, goizean eta eguerdian ikastaroetako atek zabalik egongo dira asteleheneetik, hilak 13, eguenera arte, hilak 16, hamasei urtetik gorakoentzat. 16 urtetik gora be euki behar dira, eguenean,

## MARATOI TXIKIA

# Unai Intxaurregak eta Zuriñe San Eduardok irabazi eban Maratoi Txikia

Inoz baino arratiarragoa izan zan urri bigarrenaren 22an jokaturako Arratiako 42.

Maratoi Txikia eta hori podiumean ikusi ahal izan zan.

### Erredakzioa

Zeanuritik Igorrera 11 kilometroak eginda, lehena helmugara ailegatan Unai Intxaurrega Zeanurikoa izan zan eta bigarrena Youness Asselhi Arantzazukoa. David Alvarezek osotu eban gizonen podiuma. Andrazkoetan be podiumean izan zan Igorrekorik. Izan be, Zuriñe San Eduardoren ostean, Olatz Landajok eta Maider Iturrondobeitiak egin eban bigarren eta hirugarren.

Aurrekoetan baino Arratiatik kanpoko lasterkari gitxiagok hartu eban parte Maratoi Txikian. Errazoiak asko izan daitezke, baina beste zita batzuek egiten ebalako bat izan daiteke bat. Izan be, Bilbao Night Marathon bezperan izan zan, esate baterako. Edo akaso lasterketari ez daukielako oindino euren agendetan Maratoi Txikia udagoienara pasau izana. Edozelan be, proba nagusian ez zan aurreko urteetan bes-teko partaidetzarik egon.

Umeen probetan ostera, kontrakoa gertatu zan. Antolakuntzan guraso alkarte gehiago egon zirala igarri zan umeen parte

hartzean eta inoz baino ume gehiagok hartu eban parte lasterketetan. Publikoan be jente asko egon zan.



Andrazkoen podiuma.

egoitzan. Irabazlearentzako saria egongo da.

Martitzeneko *Martxa nordikoa* hasikerako ikastaroa be, persona nagusientzat da. 18:00etatik 20:00etara izango da Gudarien parkean eta bastoiak eskuragarri izango ditue.

Hurrengo egunean, *Ariketa fisikoa plazaz plaza* erronkan parte hartu ahal izango dabe nagusiek, 17:30etik 19:30era, Gudarien parkean hasita.

### Edade guztientzat

Publiko guztientzako zabalik egongo da Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako *Elkartasuna Ghulan Murtazarekin* berbaldimondia. Astelehenean izango da, 19:00etan Kotxepin Kultur Etxean. Barikuan, hilak 17, Durundibarri Dantza Taldeak, jantzan ipiniko ditu 18:30ean, Plaza Gorriera hurreratzen diran guztiak.

Zapatuan, jaia egongo da kiroldegian 16:30etik aurrera. Lehenegotik, Lemoako pelotarien erakustaldia egongo da eta ostean, musikea, pintxo-potea, errifak eta sariak.

## ERRUGBIA

# Partidu bat irabazi eta bestea galdu dabe zekorrek

### Erredakzioa

Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek taldeak atzen astegoien bietan jokatu ditu partiduak. Lehenengo, UBR Nerbioi taldearen kontra jokatu eban etetik kanpo eta estu-estu, baina galdu egin eban arratiarrek, 21-17. Bigarrena ostera, etxean jokatu eban AVK Bera Bera B taldearen kontra eta hau bai, erraz irabazi eban, 84-7. Oin, aste biko denkantsua izango dabe.

Zekorrek jokalaria falteagaz egon dirala-ta, hainbat gemikar batu jakiez taldera eta honeen lehen partidua izan zan Nerbioi taldearen kontrakoa. Bigarren partiduan, Bera Bera B taldearen kontra, erraz irabazi eban markagailuan alde ikusgarria aterata. Denporaldiko lehen puntuak lortu ebezan holan. Halanda be, Ekaitz Duñabeitia entrenatzaileak onartu ebanez, "eurak jokalaria gitxigaz etorri ziran eta holan, errazagoa egin jakun irabaztea".





## MUSIKEA

Noreñako (Asturias)  
Academiak eta Arratiako  
Musika Eskoleak kontzertua  
eskainiko dabe Igorren

Zemendiaren 4an, 19:00etan, Noreñako Academia eta Bandak eta Arratia Musika Eskolako Gorbeia Ensemblek eta txistu taldeak kontzertua eskainiko dabe Igorreko Kultur Etxean.

## Erredakzioa

Zemendiaren 4 eta 5ean, Noreñako Academia eta Bandako 30 lagun inguru etorriko dira Arratiara. Zemendiaren 4ko arrastian bisita gidatua egingo dabe Areatzan Markel Petralanda herriko historilariagaz. Arratiako Musika Eskolakoak Asturiasen egon ziran pasau dan maiatzean.

Arratiako Musika eskolako talderik handiena da Gorbeia Ensemble: 10 eta 19 urte bitarteko 27 kidek osotuten dabe eta eskolan irakasten diran instrumentu ugariaren erakusgarri da: flautea, biolina, saxoa, klarineta, tronpetea, gitarrera, bajua, pianoa, biolontxelo, trikitixa, akordeoia, txalapartea, perkusioa eta albokea, ahotsaz gainera.

Noreñako Banda Asturiasko zaharretako bat da, eta 1986ko urri lehenengoan sortu zan academia moduan, kide barriak musikan prestatzeko asmoz. Gaur egun 30 instrumentista ditu eta zuzendaria Juan

Ferriol da.

## Alkartrukea

Musika prestakuntzako zentroa denez, Arratiako Musika Eskoleak beti izan dau konpromisoa proiektuak egiteko beste musika eskola batzuek, lehen hezkuntzako eskolakaz eta Euskal Herriko Unibertsitateagaz lankidetzan. Izan be, betiko ingurunetik urteteak, ikaskideak biziteak eta zaletasun berberak dituen beste gazte batzuk ezuteak onurak dakarriez ikasleei.

Hori dala-ta, joan dan maiatzean Arratiako Musika Eskolako ikasle eta irakasle talde bat Asturiasera joan zan astegoienspasa. Han kontzertu bi eskaini ebezan; bata Lugones Kultur Etxean, herriko aterpetxean ostatu hartzearen truke, eta bestea Noreñako plazan, herriko bandeagaz. Kontzertu bi horreez gainera, Asturiasko inguru hau, Llanes, Oviedo eta Gijon, hain zuzen be, ezetuteko aprobetxau eben arratiarrek.

## ZEBERIOKO

## Kultura jardueraz betetako hiru eguneko jaialdia egingo dabe Zeberion

Zemendiaren 3, 4 eta 5erako, Zelako Kultur Ideiak kooperatibeak, kontzertuz eta beste kultura jardueraz betetako ZeberioK0 jaialdia antolatu dau.

## Erredakzioa

Antolatzaileen arabera, jaialdi honek Euskal Herriko landa eremuetako ekosistema kulturalaren aberastasuna balioan jartzea dauka helburu nagusizat eta bertan diharduen eragile eta sortzaileen dinamizazioa eta barrikuntzea sustatutea. Kontzertuetarako sarreak edo bonuak [www.herrikofest.eus](http://www.herrikofest.eus) webgunean erosi daitezke edo Artea Herriko Bentan, Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Areatzako Hagina tabernan. Bertaratzeko, autobusak ipiniko ditu antolakuntzeak Artea, Igorre eta Ugaotik bariku eta zapatu arrasti eta gauean.

Jaialdia Zubialde auzoko hainbat gunetan garatuko da astegoi osoan zehar. Eguneko jarduerak dobakoak izango dira, jente guztiari irekiak. Arrasti-iluntzean hasiko diran kontzertuetarako, barriz, eguneko sarreak edo astegoienerako bonua erosi behar da.

Zemendiaren 5era arte, ZeberioK0 jaialdia amaitu arte, margo eta eskultura erakusketea dago ikusgai Zeberioko udaletxeko bartzar aretoan. Bertan, Iker Mugarra Zeberion bizi dan Trapagako sortzailearen pintura errealistak, Nieves Barrenetxea bilbotarraren margolanak eta Jabi Putxetas zeberioztarraren eskultura-lanak ikusi ahal dira.

Erakusleho bat izateaz gainera, jaialdiak hausnarketarako eta eztabaidarako gunea be izan gura dau. Zentzu horretan, zapatu goizean mahai-inguru bitaz gozatzeko aukerea eskainiko dau ZeberioK0-k Hogar izeneko aretoan. Xabier Madariaga kazetari zeberioztarraren gidaritzapean, 10:30etik 12:00etara *Kolektiboa landa eremuan* gaiaren inguruan berbetan jardungo dabe Maskilu, Arratia-Nerbioiko baserritar eta ekoizleez osotutako konserbera kolektiboak, Faktoria Aiaraldeko gizarte ekimeneko irabazi asmorik bako kooperatibeak eta Errigora Nafarroa hegoaldeko ekimen herritarreko hiru ordezkariak.

Ostean, 12:15etik 14:00etara bitartean eta Madariagak gidatuta hau be, *Artearen eginkizuna landa eremuetako gizarte-kohesioan* izenburupean esperientziak eta hausnarketak partekatuko dabez esparru honetan erreferenteak diran hiru alkartetako kidek: Mu-

turbeltz, Karrantzako ardiaren alde lan egiten dauan alkarte agroekologikoa eta artistikoa; MAR, Aragoiko landa-ingurunean andra artisten eta artisauen plataforma eta DAR, Valentziako andrazko artista bisualak bateratzen dituan alkarteak.

Domekako ekintzen artean aitzatekoa da Ses, "Galiziako musikariak sano proposamen personala taularatuko dau. Bere estiloan, rock'n rolla, galiziar folklorea eta Latinoamerikako autore-kantuen kadentzia nahasten ditu, punk jarrera eta erraietatik ateratako letra zintzo eta landuakaz" dinoe antolatzaileek.

## Egitaraua

## Zemendiak 3, barikua

18:00etan, *Zeberio kantuz* bideo-kliparen grabaketea eta inaugurazioa Zubialdeko aparkalekuko karpan. Zeberioztarrek eta eragileek Zeberioztar beren-beregi sortutako abesti eta koreografia bat jantzatu eta abestuko dabe. 19:00etan, Boga garagardaoaren katea Hogarrean. 20:00etan, Etxanderak Zeanuriko jantza taldearen emonaldia plazan. 21:00etan kontzertuak: Basatitak, La Basu, Berta Vitter Sweet, Espinelis, Zitzada, DJ Latita, Alas Glow, Maria Rivero, Green Valley eta Woman Soldier.

## Zemendiak 4, zapatua

11:00etatik 15:00etara, Arratiako ekoizle eta artisauen azokea. Erropa birziklaia, ilustrazioak, belarritakoak, zeramikea, agrokosmetikea, intsentsua eta tea, haurtxoentzako erropea, naruzko eta zidarrezko osagarriak eta abar.

10:30etik 12:00etara, *Kolektiboa landa eremuan* mahai-ingurua Xabier Madariagak gidatuta.

11:00etatik 13:00etara, Hekthor Folk musikariaren pandero tailerra. 12:15etik 14:00etara, *Artearen eginkizuna landa eremuetako gizarte-kohesioan* izenburupean mahai-ingurua Xabier Madariagak gidatuta. 14:00etan bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita eta Xabi Payá. 17:00etan, Orkrestre Elektrotuna. 21:00etan, kontzertuak: Janus Lester, Skabidean, Amparanoia eta Bad Sound System karpan.

## Zemendiak 5, domekea

11:00etan, *Sorginak 2.0* atelier ibiltaria. 12:00etan, txokolate dastaketea Kaitxoren eskutik.

13:00etan, *Zeberio kantuz* bideo-kliparen proiektzioa.

13:30ean, Unai Elorriaga idazleak eta Josu Aurrekoetxea musikariak *Odola kantari* lanaren estreinaldia egingo dabe.

17:00etan, Burbuilak taldearen kontzertua eta Ses Galiziako musikagilearen kontzertua.





## URRUZUNO

### Aurten Urruzuno saria jaso daben ikasleei aitortza egingo deutse Arratia Institutuak



Ekitaldiak hiru helburu ditu; aurten saritutakoei aitortza egitea ikastetxeko hezkuntza komunitatean; Arratia BHI Institutuak 1986tik hona Urruzuno Literatura Lehiaketan izandako parte-hartzea goraiatzea eta eskualdeko gainetiko Institutu eta Lanbide Heziketak animau euren ikasleek Urruzunon parte hartu dagien.

#### Erredakzioa

Zemendiaren 7an izango da ekitaldia, 09:15ean, Arratia Institutuan. June Etxezarraga Yurrebasok eta Andere Bouza Bengoetxeak poesia eta Enara Gallastegi Barrenetxeak prosako lanakaitik jaso dabez sariak. Saridunetz gainera, Institutuko zuzendaria eta Mikel Urkixo irakaslea eta idazlea egongo dira, besteak beste.

#### Saritutako lanak

Arratia Institutuko saritutako hiru ikasleak, DBH 3. eta 4. mailako kategoriakoak dira. June Etxezarragari, *Neska nerabe baten bizitza zortzi ahapalditan* eta Andere Bouzari *Zauria maitasunetik* poesia lanek emon eutseen Urruzuno saria. Enara Gallastegik barriz, *Hasiera berri bat* narrazioa gaitik jaso eban saria.

## MUSIKEA

### Zea Maysek Igorreko Gaztetxean joko dau

#### Erredakzioa

Rock talde bilbotarrak Gaztetxe Bira hasiko dau hilaren 4ean eta bigarren geldialdia izango da Igorreko.

Zemendiaren 11n, zapatua, 21:30ean Zea Mays taldeak kon-

zertua eskainiko dau Igorreko Kiñu Gaztetxean. *Adore*, *Kemena*, *Kuraia* atzen diskoko kantak zein rock talde bilbotarraren abesti klasikoek entzuteko aukerea egongo da zuzeneko kontzertuan. Sarrerak, urri bigarrenaren 31n hasi ziran saltzean Igorreko Axular Herriko Tabernan, zortzi euroren truke, eta bertan egongo dira amaitu artean.

Zea Mays taldea 1997an sortu eben Bilboko Errekalde auzoan Aiora Errenteriak (ahotsa), Asier Basabek (bateria), Ruben Gonzalezek (bajua) eta Iñaki Imazek (gitarra). Diskografia luzea eta historia arrakastatsua dauka.

## ANTZERKIA

### Ez dok ero umorezko antzezlanak dakar Tartean Teatroak Lemoako Kotxepin Kultur Etxera

Patxo Telleriak idatzitako *Ez dok ero* taularatuko dabe zemendiaren 11n, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak.



#### Erredakzioa

Lanak, "euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformadua, barregarria eta aluzinua" eskaintzen dau.

Literatura unibersaleko arketipo ezagunenera jo ezker, Mikel Martinezek On Kixoteren irudia ekarriko deusku gogora, idealismo demasa eta errealidadearen interpretazio eszentrikoa egiten dualako. Patxo Telleriak barriz, Santxo Panza baten itxurea hartuko dau, bere pragmatikotasun demasa, anbizino eza eta baldarkeriagaz.

#### Sinopsia

"Mikelote eta Pantxo" bikote artis-

tikoa desegin da. Euren formula komikoa gastauta egoan, eta belaunaldi barriek euren lekua hartu dabe. Pantxok ondo hartu dau behartutako erretiroa. Agerlekue-tatik urruntzeko gogoia eukan aspalditik, bizimodu lasai eta normalizua egin gura eban. Mikelotek barriz ez dau amaitu dala onartu gura eta antzerkiaren pozoiak burua galtzeraino eroango dau.

Egun baten Mikelote, "antzerkilari andante" estafalaria, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskal Herrian zehar joateko, herriz herri antzeztara, "Euskal Antzerkiak Behar Gaitu" uste inozoagaz. Holan ibilbide fantastiko bat egingo dabe Euskal Herritik.

## LAGUNTZAK

### Areatzako alkarteek dirulaguntzak eskatuteko epea zabalik



#### Erredakzioa

Zemendiaren 10era arte, Areatzako kirol eta kultura alkarteek, eskabideak eta dokumentazioa aurkeztu daiekiz udaletxean, udalerriarantz interesgarriak diran jarduerak egiteko dirulaguntzak eskatuteko. Dirulaguntza deialdia urri bigarrenaren 13an publikatu zan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Udal aurrekontuak, 12.000 euro aurreikusten ditu alkarteetara lagunduteko. Dirulaguntzak alkarteek lortutako puntuaketearen eta aurkezten dabezan aurrekontuen arabera bananduko dira. Udal dirulaguntzak, bateragarriak dira proiektua aurrera aterateko beste erakunde publiko edo pribadu batzuek emonadako dirulaguntzak. Beti be, ezingo da gainfinantzaketarik egon.

## DUNBA

### Hobetu daigun!

#### Zeanuriko eskolako LH5. mailako ikasleak

Azkenengo urteotan klima aldatuten dabilala konturatu gara. Sasoi honetan, urri bigarreneko aste bitan izan doguzan tenperatura altuak argi adierazoten dabe.

Udagoieneko aspaldiko tenperaturak, guztiz ahaztuta daukaguz, eta oin muturreko tenperaturak baino ez daukaguz, bero handiak eta oin dala hilebete botatako txingorra be ez dogu ahaztuko.

Klima aldaketea mehatxu handia da, ez dau bereizten landare



eta gizakien artean eta bardin jako pobre edo aberats izatea. Guztiongan eragina daukan arazo bat da.

Arazo honeri aurre egiteko, badaukagu nondik ibili eta betiko landara edo animaliak euki gura badoguz bakotzak bere ardurak hartu beharko dauz.

Hona hemen gure planeta zaintzeko gure eskura dagozan proposamen batzuk:

- Ahalik eta gehien birziklau.
- Argia behar ez danean amatau.
- Urari erabilera egokia emon.
- Plastikozko boltsak ahalik eta gutxi erabili.
- Garraio publikoa erabili edo ko-

txea partekatu.

- Etxebizitzan energia barritagarriak instalau.
- Sasoiko elikagaiak kontsumidu...
- Guztiok ahalegina egiten badogu, gure ingurua osasuntsuago egongo da.





## AGENDA

ZEMENDIAK 2  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

## AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Hilaren 22ra arte, gazteek etxebizitzak alokatzeko udal dirulaguntzak eskatzeko epea udaletxean edo udal webgunean.

## BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

## DIMA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik eguenera.

Hilaren 18ko Andraizeak antolatutako *Autodefensa feminista* tailerrerako izen-emotea [andraizea@gmail.com](mailto:andraizea@gmail.com) helbidean. 8 orduko ikastaroa, 1. taldea, 1998tik 2005era jaiotakoak; 2. taldea, 2006tik 2008ra jaiotakoak; 3. taldea 2009tik 2011ra jaiotakoak.

## IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela zabalik Kultur Etxean. Egunero.

Liburutegia zabalik astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

Arrastian, Elkartasun Begiradakek antolatuta, Laugarren Azoka Solidariorako gauzak batu, Agirre Lehendakaria kaleko aterpeetan (autobusaren geraleku ostean).

Hilaren 11n izango dan Zea Maysen kontzerturako sarrerak salgai Igorreko Herriko Tabernan.

## LEMOA

08:00retatik 21:00etara, Kotxepineko ikasgela zabalik. Egunero.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kultur Etxean.

Ganzabalek zementiaren 19rako antolatutako Lemoatx Trailerako izen-emotea [buscametas.com](http://buscametas.com) webgunean.

Abenduaren 15era arte, konsumorako bonuak erabili daitezke. Bonuak komertzio honeetan erosi daitezke: Merceria Josier, Tximeleta, Batzoki Lemoa, Kresala, Argazkilune, Laiane Ileapaindegia, Farmazia Lemoa, Amorrortu, Lezat eta Bizkarran, 10 euroko prezioan, 15 euroko balioagaz erabilteko.

## ZEANURI

Batziler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Udagoen osoan, Gorbeia Parke Naturalak Otzarreta ingurua gozatzeko natura errespetauz, konzieniazino kartelak ipiniko ditu Barazar mendatearen inguruan.

18:00etan, Josune Muñozen ikastaroa, *Basa emakumeak: emakumeak eta baserri giroa euskal literaturan*. Arkotxan. Mazala andra taldeak antolatuta.

## ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

ZEMENDIAK 3  
ARRATIA

eusGarako ikastaroetan izena emoteko atzen eguna. *Telefonoz euskaraz* ikastarorako <https://labur.eus/Hxb0M> estekan eta *E-mailak euskaraz* ikastarorako <https://labur.eus/HfWEB> estekan.

## DIMA

17:30ean, helduentzako euskal jantzak barikuetan. Gazte Barriko gurasoak 45 euro hiruhilabetea; gainontzekoek 60 euro. Izena [gaztebarri@gmail.com](mailto:gaztebarri@gmail.com) helbidean emon.

## IGORRE

19:00etan, *Herrian hil, hirian hil* dokumentala eta Iñaki Peña zuzendariagaz solasaldia Lasarte Aretan.

## ZEBERIO

ZeberioK0. 18:00etan, *Zeberio kantuz* bideokliparen grabaketea eta inaugurazioa Zubialdeko karpan; 19:00etan, Boga garagardaoaren katea Hogarrear; 20:00etan, Etxanderak Zeanuriko jantza taldearen emonaldia plazan; 21:00etan kontzertuak: Basatiatik, La Basu, Berta Vitter Sweet, Espinelis, Zitzada, DJ Latita, Alas Glow, Maria Rivero, Green Valley eta Woman Soldier.

ZEMENDIAK 4  
DIMA

15:15ean, Euskararekin bat, euskaraz bat Bilboko manifestazina joateko debaldeko autobusa, autobus paradan. Izena emon alde aurretik Dimako udaletxean, 94 631 57 25 telefonoan edo <https://form.jotform.com/232834978535066> estekan.

## IGORRE

11:00etan, heriotzea eta doluaren gaineko mahai-ingurua. Hizlariak: Itsaso Bengoetxea Galdakaoko Ospitaleko zainketa aringarrietako mediku espezializaua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eutanasiaren Berme eta Ebaluzio Batzordeko presidentea eta Marta Sariñena Psikologo eta terapeuta transpersonala eta Monzoneko (Huesca) doluari laguntzeko alkarteko presidentea. Liburutegian.

11:30etik, 14:00etara, *Txapa* tailerra. Zementiaren 30eko greba feminista

## Ipuin kontalaria egongo da Igorren zementiaren 10ean

Izaskun Mujika ipuin kontalariaren, *Ipuinen lapikoa* izeneko saio bi egongo dira Igorreko Liburutegian zementiaren 10ean: bata, 3 eta 6 urte bitartekoentzat 18:00etan, eta bestea 7 urtetik gorako umeentzat 19:00etan.

Saio honeetan, Strega Nona, Italiako sorgin zintzoaren lapiko magiko ezetuteko aukerea izango dabe umeek. Eta sorginaren ipuin dibertigarriakaz gozatzeaz gainera, lapikoak munduan zehar egindako ibilbidean jaso dituan istorioak entzungo ditue. Sorginkeriaren bat edo beste egiteko aukerea be izango dabe.



orokorra dala-ta, zaintza grebarako prestaketako informazio banaketea Arratiako Mugimendu Feministaren eskutik, Lehendakari Agirreko autobus geralekuaren atzean.

19:00etan, Arratia Musika Eskolea eta Noreñako Academia eta Bandearen kontzertua Lasarte Aretan.

## ZEBERIO

ZeberioK0. 11:00etatik 15:00etara, Arratiako ekoizle eta artisauen azokea; 10:30etik 12:00etara, *Kolektiboa landa eremu* mahai-ingurua Xabier Madariagak gidatuta; 11:00etatik 13:00etara, Hekthor Folk musikariaren pandero tailerra; 12:15etik 14:00etara, *Artearen eginkizuna landa eremuetako gizarte-kohesioan* izenburupean mahai-ingurua Xabier Madariagak gidatuta; 14:00etan, bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita eta Xabi Payá; 17:00etan, Orkresta Elektrotuna; 21:00etan, kontzertuak: Janus Lester, Skabidean, Amparanoia eta Bad Sound System karpan.

ZEMENDIAK 5  
ARTEA

13:00etan, hilaren 30eko Greba Feminista Orokorra dala-ta argazki kolektiboa. Plazan.

18:30ean, Palestinaren gaineko berbaldea Basoan. Comision Nacional de Accion Palestinakoek emonda.

## IGORRE

17:00etan, zinea, *Vampiro al rescate*; 19:30ean, *El valle de la esperanza* Lasarte Aretan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako eguneko jarduerak. Berastegi-Goizueta. Urepel (1.059 m)-Mandoegi (1.046 m)-Leuneta (887 m).

## ZEBERIO

ZeberioK0. 11:00etan, *Sorginak 2.0* ateliera ibiltaria; 12:00etan, txokolate dastaketea Kaitxoren eskutik; 13:00etan, *Zeberio kantuz* bideokliparen proiektzioa; 13:30ean, Unai Elorriaga idazleak eta Josu Aurrekoetxea musikariak *Odola kantari* lanaren estreinaldia egingo dabe; 17:00etan, Burbuilak taldearen kontzertua eta Ses Galiziako musikagilearen kontzertua.

ZEMENDIAK 6  
DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera

hilaren 16ra arte, *Gizonak berdintasunerantz pausoka*. *Gizontasun berri baten aldeko 24 irudi eta hamaika arrazo* erakusketea liburutegian. 18:00etan, jenteari zuzendutako ekintza bat eta Juan Manuel Feito Piper Txuriak alkartekoaren berbaldea.

ZEMENDIAK 7  
DIMA

16:00etatik 20:00etara, KZ Gunea liburutegian, IT Txartelak, ikastaroak, BakQ eta aurrez aurreko tutoretza teknologikoa. Informazio gehiago Dimako udaletxean, 94 631 57 25 telefonoan eta [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbide elektronikoa.

ZEMENDIAK 8  
LEMOA

09:00etan, Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta, Lerinera (Nafarroa) txangoa konserba fabrikara bisitan. Tailerretan.

ZEMENDIAK 9  
DIMA

18:30ean, *Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa Diman*. Klima aldaketea eta energiari buruz erositateko liburuak, Zer da klima aldaketea? Egungo egoera. Zer egin? energia barriztagarrien komunitadea egiteko alternatiba parte-hartzailea eta kopaua 0 kilometroko produktuakaz. Liburutegian.

## LEMOA

Gazte emantzipazioa. 18:00etan, 23 eta 30 urte bitartekoak eta 20:00etan, 31 eta 36 urte bitartekoak Kotxepin Kultur Etxean.

## ZEANURI

Josune Muñozen ikastaroa, *Basa emakumeak: emakumeak eta baserri giroa euskal literaturan*. Arkotxan. Mazala andra taldeak antolatuta.

ZEMENDIAK 10  
DIMA

17:30ean, helduentzako euskal jantzak barikuetan.

19:00etan, Andraizeak antolatuta, Gorka Mola Landinen *La apostasia de las putas* liburuaren aurkezpena liburutegian.

ZEMENDIAK 11  
IGORRE

21:30ean, Zea Mays Kiñu Gaztetxean.

## LEMOA

20:00etan, antzerkia, Tartean Teatro Konpainiaren *Ez dok ero* Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 12  
IGORRE

17:00etan, zinea, *Abentura erraldoia*; 19:30ean, *Cerrar los ojos* Lasarte Aretan.

## LEMOA

10:00etan, XXIV. Nekazaritzako Elikagaien

Azokea Arlonagusia plazan.

Gazte emantzipazioa. 18:00etan, 16 eta 22 urte bitartekoak. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 13  
LEMOA

Kirol eta ariketa fisikoaren astea. 09:00etatik 11:30era, ibilaldi gidatua helduentzako Gudarien parketik hasita; 17:30etik 19:00etara, Igel Txapelketea jubilatuen egoitzan; 19:00etan, berbalde-emonaldia *Elkartasuna Ghulan Murtazarekin* Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 16ra arte, kiroldegiko ikastaroetarako ate irekiak.

ZEMENDIAK 14  
IGORRE

17:30ean, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntzako eskolako *Arteterapia* ikastaroko lehenengo saioa. Kultur Etxean.

## LEMOA

Kirol eta ariketa fisikoaren astea. 18:00etatik 20:00etara, *Martxa nordikoa* hastapenetako ikastaroa helduentzatz. Gudarien parkean.

ZEMENDIAK 15  
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak Lamino Kirol Klubagaz alkarlanean antolatutako mendi ibilbidea. Belaustegi-Oderiaga-Egileor-Kolometa-Belaustegi. Izena emon [gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

## ARTEA

18:00etan, Ilgoran Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Contra la banalización del feminismo* liburuaren lehenengo atalaren lanaketea Kultur Etxean.

## LEMOA

Kirol eta ariketa fisikoaren astea. Herrikirolak ludotekan: 16:30etik 17:45era, HH4-LH2 eta 16:45etik 19:00etara, LH3-LH6; 17:30etik 19:30era, *Ariketa fisikoa plazaz plaza* erronka helduentzako Gudarien parkean.

ZEMENDIAK 16  
DIMA

18:00etan, jenteari zuzendutako ekintza bat eta Juan Manuel Feito Piper Txuriak alkartekoaren berbaldea liburutegian.

## IGORRE

Arrastian, Elkartasun Begiradakek antolatuta, Laugarren Azoka Solidariorako gauzak batu, Agirre Lehendakaria kaleko aterpeetan (autobusaren geraleku ostean).

## LEMOA

Lemoako Binakako I. Pentatloia kiroldegian 16 urtetik gorakoentzat. Izen-emotea [kiroldegia@lemoa.eus](mailto:kiroldegia@lemoa.eus) helbidean.

**TXIN-TXIMINI**

- Tximiniaren garbi-ikuzia
- Ikuskapena telebista kamarakaz
- Txosten teknika
- Instalazioen erabartzea eta mantentmentua

Telefonoa 657 77 94 58  
info@txin-tximini.com  
TXIN-TXIMINI.COM • Bizkaia

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO  
GARAPENEAN LAGUNTZEN



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarru auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m<sup>2</sup>) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### TXOKORAKO MAHAIK SALTZEAN DIRA

Mahaien neurriak: 2,80 metro luzeera, 90 cm zabalera eta 8,50 cm lodiera. Prezioa: 300 euro. Eserlekua, 2,80 eta 3 metrokoak, 50 euro bakoak. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

#### ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua.

Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

### LANA

#### GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** ZeberioK0 jaialdia emondako asteigoieneko bonoa.

**2** Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Ez dok ero antzezlanerako.

Eguzkiñe Zuluaga (Dima)

Amaia Jugo (Arantzazu)  
Gotzon Aurrekoetxe (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
TEL. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Fax: 609-79-40-54

**begitu**  
**eus**



 **Smurfit Kappa**  
CENTRAL FORESTAL



Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68** telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.

[eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es](mailto:eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es)



[www.smurfitkappa.com](http://www.smurfitkappa.com)